


Liburuak

KRITIKA

Ispiluak. Mikel Hernandez Abaitua.
Hordago, 1985 (Elkarrek berrargitaratua 1993an).
143 orrialde. 10,30 euro.



Hemeroteka

Gorka Bereziartua

Rock & Folk

EZIN TENTAZIOARI EUTSI: hartzen duzu Mikel Hernandez Abaitua bezalako idazle melomano baten liburu bat, eta konparazio-tan hasten zara. 1985eko ipuin bilduma interesgarri hau bi partetan banatuta aurkeztu zen: lehenengoa *Munduaren ispilua* eta bigarrena *Ispiluaren mundua*. Hernandez Abaitua Bob Dylan balitz, esango genuke disko berean argitaratu zituela *Highway 61 Revisited* rockeroa eta *The Times They Are a-Changin'* folkia. *Munduaren ispilua* rocka, kontakizun errealistak biltzen ditu –batzuk baino gehiago besteak–; *Ispiluaren mundua* daude berriz, liburu ipuin fantastikoak, folkiak, eta esango nuke, askori antzematen zaiela Joseba Sarrionandiaren *Narrazioake*ko ipuinen eragina –ez alferrik, bi urte lehenago argitaratu ziren–.

Gustu kontua da, noski, baina nik gehiago gozatu dut lehen erdiarekin. Errotulagailu fosforitoak eta *post-itek* ez dute gezurrik esaten: *Neguko ipuina*, *Wan Shan* eta *Oparia* dira behin liburu bukatuta markatuen dauden zatiak. Lehen ipuina ere, *Epa-minondas*, oso kontuan hartzekoa da ipuinaren konstrukzio borobilarengatik.

Bigarren zatiak ez nau hainbeste konbentzitzen; eta zalantza daukat, garaiko moden kontua ote den, elezaharrei alergia ote diedan, ala erreferentziak falta ote zaizkidan *Ispiluaren mundua*-ko ipuinekin disfrutatzeke. Eta uste dut azken horrek izango duela zerikusirik. Zergatik? Bada, erreferentzia horietakoren bat aurkitzean, beste sakontasun bat hartzen dutelako istorio-ok. Bat aipatzeko, *Edaria* izenekoa. T.S. Eliot nabarmen ageri da, “denbora presentea eta denbora pasatua, agian biak daude presente denbora futuroan” bezalako esaldietan; gainera, planteamenduak Borges-en *El inmortalen* oihartzunak ditu. Horrek, noski, asko zabaltzen ditu ipuinaren irakurketa aukerak. Baina ez ditut horietako sobera aurkitu, gordeegi daudelako, edo argirik gabe sartu naizelako bilatzera.

Edonola, puntako ipuingile baten lana da liburu hau. Estimazio gutxiegi izan duen puntako ipuingile batena? Beharbada. 24 urte zituenean argitaratua, *Ispiluak* Hernandez Abaituaren bigarren liburu baina ez zen izan. Atzetik beste ipuin bilduma bi publikatu zituen, eta nobela pareak; saio bat –*Literatura eta Rock & Rolla*– eta berriki tesia, Saizarbitoriaren nobelagintzari buruz behin eta berriro errepikatu den ideia bat –*nouveau romanaren* eragina– desmuntatzera datorrena. Jakina da, rockero zaharrak ez dira sekula hiltzen: 50 urterekin sasoi oneko dago Abaitua; *Hobe beharrezko kritika Euskaltzaindiari* artikulua irakurri duenak badaki zertaz ari naizen. ■

Hamaika lagun euskal kulturaren iazko uztaz

Joan den urteko *Jakin* aldizkariaren azken zenbakian euskal kulturak urte osoan emandakoaz iritzia eskatu zioten hamaika laguni. 2008ko uztaren fruituak non jaso dituzten azaldu dute Alberto Barandiaranek, Pantxoa Etchegoinek, Patxi Gaztelumendik, Xabier Mendiguren Bereziartuk, Laura Mintegik, Xabier Mendiguren Elizegik, Fito Rodriguezek, Allande Sokarrosek, Andres Urrutiak,

Eguzki Urteagak eta Iñaki Zabaletak. Gaiak, ugari: Iruña-Veleia, Mikel Laboaren heriotza, Kepa Junkerari Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak, Iparraldean euskarazko antzerkiak eskaini dituen lan azpimarragarriak, ETB3... urteak eman zuen zeresana, argi dago. Gainera, Patxi Salaberri Muñoak Bologna prozesuaz idatzi du. ■



Jakin 169.
Batzuen artean.
Jakinkizunak.
102 orrialde.
9,95 euro.

Tantak aldizkariaren 40. zenbakia

Urtean bi zenbaki argitaratzen ditu *Tantakek*, EHUko Hezkuntza Aldizkariak. Iazko abenduan publikatu zuten 40. zenbakia, eta irakaskuntzarekin lotutako hainbat gai zekartzan. Mario Unamunok euskarazko testu-liburuez idatzi du, zehazki liburu horietan islamari buruz zabaldu diren mezuak aztergai hartuta. Txema Egañak galdetu du ea unibertsitateko ikasleak konpetenteak ote diren informazioa bilatzen. Hiri Hezitzailearen kontzeptuaren inguruan aritu dira Olaia Jimenez, Jose Francisco Lukas, Felix Basurko, Karlos Santiago eta Luis Lizasoain. Era berean, nabarmentze-

koa da hezkuntzari buruzko nobedade editorialei eskainitako tartea ere. ■



Tantak 40.
Batzuen artean.
EHU.
150 orrialde.
20 euro (urteko harpidetza).